



9/2024 TXOSTENA, EKAINAREN 28KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA

XEDEA: DONOSTIA HIRIKO UDAL ESTOLDERIAREN SAREA GARBITU, IKUSKATU ETA ISURKETAK KONTROLATZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN KOSTU-EGITURA ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA

I.- AURREKARIAK

2024ko maiatzaren 28an, Donostiako Udaleko eskabide bat sartu zen Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren erregistrora, Kontratazio Publikoko Aholku Batzordearentzat. Eskabide horretan, batzorde horri eskatzen zitzaion txosten bat egiteko Donostiako udal-estolderiaren sarea garbitzeko, ikuskatzeko eta isurketak kontrolatzeko zerbitzu-kontratuaren kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruz, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 EDaren 9.7 artikuluari jarraikiz.

Horretarako, kontratuaren hainbat agiri bidali dira, kostu-egiturari eta kontratu horren prezioak berrikusteko formulari buruzko proposamena barne.

Kontratua gauzatzeko epea 10 urtekoa da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29.4 artikulua bigarren paragrafoaren arabera (SPKL), lizitazio-kontratuko administrazio-klausulen agirietan aurreikusten da prezioak berrikusiko direla 55/2017 EDaren 10. artikulua arabera.

Halaber, 55/2017 EDaren 9.7 artikuluari jarraikiz, sektoreko operadore ekonomiko batzuei eskatu zitzaion kostu-egitura bidaltzeko; jasotako informazioan oinarrituta, kostu-egituraren proposamena eta jendaurreko informazioaren izapidea egin ziren, eta ez da jaso inolako alegaziorik.



II.- ESKUMENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko Dekretua bigarren bez aldaturik duen 154/2022 Dekretuaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAAn argitaratua), hamabigarren xedapen gehigarria gehitu zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko 116/2016 Dekretuari.

Hamabigarren xedapen gehigarri horretan, jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrak egin behar duela nahitaezko txostena, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari buruzkoa, eta, horretarako, hoguei eguneko epea izango duela, toki-entitateen eta haren mendeko organismoen edo entitateen txostenaren eskaera jaso, eta hurrengo egunetik aurrera.

Txostenaren irismenari dagokionez, haren ardatz dira Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 EDaren 9.7 artikuluari dagozkion alderdiak.

III.- GOGOETA JURIDIKOAK

Lehenengo eta behin, aipatu behar da kontratu publikoetako prezioak berrikusteko erregulazioa, zeina SPKLn jasotzen baita, egokitu egiten dela Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legean xedaturakora. Ildo horretatik, prezioak ez dira berrikusiko indize orokorren arabera, baizik eta indize espezifikoaren arabera, eta indizeok, berriz, jardungo dute kontratatutako prestazioaren kostu-osagaiak adierazten diren formulen bidez.

SPKLren 103. artikulua arabera, kontratu publikoetako prezioak aldian-aldian eta aurrez zehaztuta berrikusi ahal izango dira, inguruabar jakin batzuetan, aldez aurretik justifikatuta eta 55/2017 EDan ezarritakoarekin bat etorriz.

Era berean, 55/2017 EDaren 9. artikulua, administrazio publikoaren obra-kontratuak eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuak ez diren sektore publikoko kontratuetan prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusteari buruzkoak, xedatzen du kontratu horien prezioak aldizka eta aurrez zehazturik berrikusi behar direla, kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro ondoren eta, gutxienez, zenbatekoaren ehuneko 20 bete

ondoren, baldin eta kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea bost urtekoa edo gehiagokoa bada, eta hala ezartzen bada baldintza-agirietan, non zehaztuko baita zer formula aplikatu berrikusteko. Bere aldetik, SPKLren 103. artikulua aukera ematen du energia-kontratuak berrikusteko, kontuan hartu gabe zein diren betetze-ehunekoak edo zenbat urte igaro diren.

Halaber, 55/2017 EDaren 9. artikulua finkatzen du zer eduki izan behar duen kontratazio-espeditari erantsi beharreko memoriak, eta zer ezarri behar den baldintza-agirietan prezioen berrikuspenari buruz; era berean, artikulua horrek ezartzen du berrikuspena ezin dela egin kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea pasa ostean.

Aipatutako 55/2017 EDaren 9. artikulua 7. apartatuaren arabera, bost milioi euroko edo gehiagoko prezioa duten kontratuetarako, kontratazio-organoak nahitaezko txosten bat sartu behar du kontratazio-espeditan, kostu-egitura baloratzen duena.

Aipatutako 55/2017 EDaren 3., 4. eta 7. artikuluek jasotzen dute zer printzipio eta arau orokorrek arautzen duten nola gauzatu prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena eta nola zehaztu aplikatu beharreko formulak, zeinak, besteak beste, hauek baitira:

- Jarduera gauzatzeko edo kontratuaren xedea betetzeko kostu zuzeneko, ezinbesteko eta handiekiko lotura (> % 1).
- Ondorioz, berrikuspenak gorantz edo beherantz egin ahal izango dira, kostu horien aldakuntzaren arabera.
- Eskulanaren kostua kontuan hartzen bada, aldakuntza ezingo da izan sektore publikoaren zerbitzura dauden langileena baino handiagoa, Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezarritakoaren arabera.
- Ez dira inolaz ere berrikusiko amortizazio-kostuekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edota egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere.
- Operadore ekonomikoaren kontrolpean ez dauden kostuen aldaketak soilik sartu ahal izango dira berrikuspen-erregimenetan. Ulertuko da kostuen aldaketak operadorearen kontrolpean daudela, baldin eta zenbait praktiken bidez saihestu ahal izan badira; adibidez, hornitzailez aldatuta.
- «Enpresaren efizientzia eta kudeaketa ona» printzipioaren arabera, berrikuspen-erregimenak erreferentziatzat hartuko duen kostu-egitura izango da ondo kudeatutako enpresa efiziente batek jasan beharko lukeena, dagokion jarduera aplikatu beharreko araudiak edo kontratuaren klausulek eskatzen duten gutxieneko kalitate-mailarekin garatzeko.

- Era berean, espedientean derrigor txertatuko den memoria batean justifikatu beharko da kontratuaren kalitate-baldintzak eta funtsezko betebeharrak betetzen direla. Hori ezinbestean egin beharko da berrikuspena egin ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari dagokio hura bidaltzea. Kontratazio-organoak kostu-egiturari buruzko balorazio-txostena prestatzeko, organo horrek honako hau egin behar du: a) Eskatu sektoreko bost operadore ekonomikori bidal diezaioten nork bere kostu-egitura; b) Egin jardueraren kostu-egituraren proposamen bat, ahal den neurrian, operadore ekonomikoen erantzunetako informazioa baliatuz; c) Jarri jendaurrean 20 egunez kostu-egituraren proposamena, eta d) Bidali kostu-egituraren proposamena aipatutako batzorde iraunkorrari.

SPKLren 103. artikulua 2. apartatuaren arabera, «prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena honako kasu hauetan bakarrik izango da posible: obra-kontratuetan, administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuetan, energia-hornidurako kontratuetan eta inbertsioa berreskuratzeko bost urteko edo gehiagoko epea duten kontratuetan Epe hori aipatutako errege-dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik kalkulatu da».

Horri dagokionez, otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikulua Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen du, eta inbertsioak berreskuratzeko epea kalkulatzeko formula matematikoa zehazten du:

$$\sum_{t=0}^n \frac{FC_t}{(1+b)^t} \geq 0$$

Non:

- t zenbaki osotan neurtutako urteak dira.
- FC_t : t : urtean espero den kuxako fluxua.
- b deskontu-tasa da; balioa izango da azken sei hilabeteetan Espainiaren hamar urterako zorrak bigarren mailako merkatuan batez beste izandako errendimendua, oinarritzko 200 puntuko diferentzian gehituta.

IV. KOSTU-EGITURAREN ETA KONTRATUAREN PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULAREN AZTERKETA

IV.1. Dokumentazioa

Donostiako Udalak honako agiri hauek bidali dizkio Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

- Kontratuaren lizitaziorako zerbitzuaren oinarritzko ezaugarriei buruzko txostena.
- Donostiako kale-garbiketako zerbitzuaren prezioak berrikusteko formula zehazteko izapideak, tokiko gobernu-batzarrari zuzenduak, izapideak egin ditzan.
- Kostu-egiturei buruzko informazio-eskaerak.
- Kostu-egiturei buruzko informazio-eskaerei emandako erantzunak.
- Lizitatuko den kontratuaren azterlan ekonomikoa.
- Kostu-egituraren eta kontratuaren prezioak berrikusteko formularen proposamena, tokiko gobernu-batzarrari zuzendua, izapideak egin ditzan.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkia, kontratuaren prezioak berrikusteko formula zehazteari buruzkoa, jendaurreko informazioaren izapidea barne.
- Kontratuaren prezioak berrikusteko erabakia udaletxeko iragarki-taulan eta ediktuetan argitaratu izanaren egiaztagiria, jendaurreko informazioaren izapidearen berri ematen duena.
- Espedientea jendaurreko informazioaren izapidearen zati gisa ikusteko bertaratze bakarraren egiaztagiria.
- Jendaurreko informazio-aldia amaitu ondoren alegaziorik jaso ez izanaren agiria.
- Donostiako Udaleko Osoko Bilkurako idazkari nagusiaren ziurtagiria, adierazten duena kostu-egituraren proposamena onetsi dela, proposamen horren jendaurreko informazioaren izapidea egin dela eta proposatutako kostu-egituraren aurkako alegaziorik ez dela jaso.

Batzordeak uste du nahikoa agiri duela udalak kostu-egiturari eta kostuen berrikuspenari buruz egindako proposamena baloratzeko, eta horretarako bideratuko ditu txostenean jarraian jasotako atalak eta apartatuak.

Bereziki, txosten honen helbururako garrantzi zuzenena duten bi dokumentuetan jarriko da arreta. Dokumentu horiek lizitatuko den kontratuaren azterlan ekonomikoa eta kostu-egituraren eta prezioak berrikusteko formularen proposamena dira, eta datozen atalak erabiliko dira dokumentu horien alderdi garrantzitsuenak azaltzeko, bai eta era askotako oharrek egiteko ere.

IV.2. Lizitatuko den kontratuaren azterlan ekonomikoaren azterketa

Etorkizuneko kontratuak hamar urteko iraupena izango du, hau da, inbertsioa itzultzeko aurreikusitako aldiarekin bat etorriko da. Azterlan ekonomikoan esplizituki agertzen ez bada ere, ondorioztatzen da kontratua modu uniformean beteko dela.

Udalak prezioak berrikusteko formula bat ezarri nahi du, betetze-maila ehuneko hogeitik gorakoa denean aplikatuko dena. Azterlanean adierazten denez, berrikuspena kontratuaren hirugarren urtetik aurrera egingo da.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (LOA) kalkulatzeko, udalak zerbitzuaren kostuak xehatzen ditu, motaren arabera. Paragrafo honen ondorengo taulan bildu dira. Kostu horiek lortzeko moduari dagokionez, erreferentzia mugatuak egiten zaizkie kontratu zaharrei, Gipuzkoako lurralde historikoan aplikatzekoa den sektoreko hitzarmenari eta «gehieneko errentagarritasun»eko ehuneko 5,53ko deskontu-tasari, zeina erabili baita «inbertsioa berreskuratzeko kostuak» terminoaren zenbatekoa lortzeko finantza-errenten bidez, inbertsioen 3.596.000 euroko zenbatespenetik abiatuta. Tasa hori 2024ko urtarrilean kalkulatu zen, Espainiaren azken hamar urteetako zor publikoaren errentagarritasunekin, 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikuluko jarraibideei jarraikiz. Errege-dekretu horretara jotzeak esan nahi du desindexazioaren legea aplikagarri zaien kontratuen inbertsioa berreskuratzeko aldia kalkulatzeko erabiliiko litzatekeen tasa bera erabiltzen dela, txosten honen xede den kontratuaren kasuan bezala.

| | | |
|--|---------------------|----------------|
| Zuzeneko kostuak | 2.846.279,38 | % 92,32 |
| Langileak | 2.003.227,35 | % 64,97 |
| Makinak | 247.292,00 | % 8,02 |
| <i>Erregaiak eta lubrifikatzaileak</i> | <i>115.392,00</i> | <i>% 3,74</i> |
| <i>Mantentze-lanak eta konponketak</i> | <i>93.300,00</i> | <i>% 3,03</i> |
| <i>Ibilgailuekin lotutako beste kostu batzuk (aseguruak, zergak)</i> | <i>38.600,00</i> | <i>% 1,25</i> |
| Inbertsioa berreskuratzeko kostuak | 477.760,03 | % 15,50 |
| Zuzeneko beste gastu batzuk | 118.000,00 | % 3,83 |
| Zeharkako kostuak | 236.851,94 | % 7,68 |
| Gastu orokorrak | 118.425,97 | % 3,84 |
| Mozkina | 118.425,97 | % 3,84 |



| | | |
|--------------------------------------|---------------------|-----------------|
| GUZTIRA / LOA PROPOSAMENA | 3.083.131,32 | % 100,00 |
|--------------------------------------|---------------------|-----------------|

Azpimarratu behar da LOA horrek, udalak terminoaz egiten duen erabileran, kontratuaren lehenengo urterokoa adierazten duela, eta lizitatzekoan kontuan izan beharko dela kontratuak hamar urteko iraupena duela, gutxi gorabehera.

Txosten hori langile-kostuen atalean gelditzen da. Atal horren lehen lerroak honako hau dio, eta oharrak egingo zaizkio:

«Gipuzkoako Lurralde Historikoko kale-garbiketa publikoaren, ureztatzeen, etxez etxeko zabor-bilketaren, hiri-hondakin solidoen zabortearen, hondartzen garbiketaren, hondakinen tratamendu eta ezabaketaren, gaikako bilketaren, birziklatzeko, garbitzeko eta kontserbatzeko instalazioen sektoreko hitzarmen kolektiboak aplikatzen diren hitzarmenak 2026. urtera arteko soldata-eta taulak jasotzen ditu, EAEko KPlari [erreferentzia] eginez. 2025erako % 4ko soldata-igoera zenbatesten da (akordioaren muga). Eskaintzaren lehenengo urterokoa 2024ko ekitaldi erdirako eta 2025eko ekitaldi erdirako izango dela aurreikusten da. Hitzarmenetik kanpoko kategoriak, kontzeptu aldakorrak, kolektiboaren antzintasunaren bilakaera eta balizko absentismoa zenbatesten dira. [Kontuan] hartu behar da langileen kostuen berrikuspena hirugarren urtean [planteatu] dela lehen aldiz (kontratuaren % 20 bigarren urtearen amaieran beteko baita), eta Espainiako indize batean oinarrituta, [beraz], egoera horren inguruko edozein desoreka plantillaren kudeaketaren bidez edo lizitazioak planteatzen duen mozkinaren kargura izan beharko da».

Oharrak

Udalak proposatutako kostuak aztertzeko datu nahikorik ez dagoenez, txosten honi begira, modu lehenetsian proposatutako balioak onartu dira, eta ezin da baloratu arrazoizkoak diren eta behar bezala kalkulatu dauden. Txosten honen helburua kostu-egitura eta kontratuaren prezioak berrikusteko formula baloratzea denez, batzorde honek irizten dio gaituta dagoela —bere agintaldiko interpretazio murriztaileenak gainditu arren— kostuak nola kalkulatu diren baloratzeko, txostenaren oinarritzko helburuan izan dezaketen eragina ikusita. Kontuan edukita kostuen hipotesien



azterketa gehigarri batek kontratua hobetzen lagun lezakeela eta kontratua hobetzeak interes publikoa ekarriko lukeela, batzordeak kostuen kalkuluei buruzko informazio zehatzagoa bidaltzeko eskatzen du.

Antzeko terminoetan, ikusita kontratuaren LOaren kalkulua 55/2017 EDan araututako prezioak berrikusteko formula kalkulatzeko aldera legeak eskatzen dituen operadore ekonomikoen kostuen egiturak jaso ondoren egin zela, aukera galdutzat jo daiteke bildutako informazioa LOA zenbatzeko kontuan hartu ez izana.

Egungo kontratuan eragin mugatzailea izateko probabilitate gutxi dagoela dirudien arren, gogoratu behar da kontratua ehuneko hogeian betetzea nahitaezko baldintza dela, baina ez nahikoa, kostu gehienak berrikusteko; izan ere, urtebete igaro behar da kontratua hasi zenetik prezioen berrikuspena onargarria izan dadin, energia-kontratuen kasuan izan ezik, aldi horretan lortutako betetze-maila edozein izanda ere. Gainera, betetzeak erreala izan behar du, ez teorikoa, eta, hortaz, hasierako urteetan betetzea partziala izateak atzerapena eragin beharko luke prezioen berrikuspenaren hasieran. Horregatik guztiagatik, komenigarria dirudi irizpide bikoitza ezartzea esplizituki (denbora eta betetze-maila), eta termino eztabaida ezinetan islatzea hainbat kontsiderazio (adibidez, berrikuspena hirugarren urtean aktibatzen dela) kontratuaren betetze idealaren suposizioaren pean deklaratzeko direla.

Aipatutako paragrafoan aipatzen da 2024ko uztailan hasiko dela betetzen. Kalkulu hori errealista izan zitekeen azterlana osatzeko unean, baina gaur egungo epeak direla eta ezin da aurreikuspen hori bete. Horrek berez arazorik sortu gabe, etorkizuneko prezioen berrikuspenei begira, udalak kontratua benetan noiz formalizatuko den izan behar du kontuan, 2/2015 Legearen 89.4 artikulua araber.

Azkenik, azpimarratu behar da deskribatutako paragrafoa soldatak berrikusteko Espainiako indize bati buruz ari dela, eta, aldi berean, azterketa ekonomikoaren hipotesiak egiteko, Gipuzkoako hitzarmena erabiliko dela aipatzen dela. Argitze aldera, kostu-egiturari eta kontratuaren prezioak berrikusteko formulari buruzko proposamenaren eztabaidako puntu bat aurreratuko du —telefonoz egin zen—: udalak egokiagotzat jo du



Espainiako batez besteko soldata-aldakuntza erabiltzea kontratuaren prezioak berrikusteko formularen soldatak eguneratzeko indize gisa, uste baitu kontratuaren lizitatzailerik probableenek pisu handia dutela Gipuzkoako negoziario kolektiboko prozesuan.

IV.3. Kostu-egituraren eta lizitatuko den kontratuaren prezioak berrikusteko formularen proposamenaren azterketa.

Xedea eta aurrekariak

Proposamenaren xedea da Donostiako garbiketa-, ikuskapen- eta kontrol-zerbitzuaren kontratuaren prezioak berrikusteko formula zehaztea.

Proposatutako idazkeraren aurretik, kontratuaren kostu mota nagusiak ezarri ziren —bat datoz aurreko apartatuan aztertutako azterlan ekonomikoan egindako banakapenarekin—, baina kasu honetan ez dira kostuen pisu absolutuak eta erlatiboak aurrez epaitu, 55/2017 EDaren 9.7 artikulua betez operadore ekonomikoengandik lortutako kostuen egituren mende daudelako, zati batean behintzat.

Deskontu-tasa eta inbertsioa berreskuratzeko aldia

Deskontu-tasa lortzeko, begiratzen da zein den, txostena egiten den unean, batez besteko errendimendua hamar urtera Espainiako zorraren bigarren mailako merkatuan, informaziorik berriena zegoen azken sei hilabeteetan (2023ko ekainetik 2023ko abendura), eta oinarritzko 200 puntu areagotzen zaizkio. Hori egokitzen da 55/2017 EDaren 10.2 artikulura, eta emaitza da 5,53ko deskontu-tasa. Azterlan ekonomikoaren laburpenean jaso zen bezala, deskontu-tasa hori LOAren «inbertsioa berreskuratzeko kostuak» terminoa kalkulatzeko ere erabili da.

Inbertsioa berreskuratzeko aldiari dagokionez, azterlan ekonomikoan horretarako aurreikusitako urteko ordainketa egiten denetik (477.760,03 euro) eta deskontu-tasa aplikatzen denetik (ehuneko 5,53) aurrera, inbertsioaren hamar urteko itzultze-denbora ezartzen da.

Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, udalaren jarduteko moduari kritika egiten zaionik. Hala ere, udalak lizitatzen duen kontratu motarekin eta inbertsioa berreskuratzearekin zerikusia duten terminoak zenbartzeko moduarekin, argi dago egiaztapen hori tautologikoa dela, jarraian jaso den taularen arabera.



| Finantza-ekonomiako terminoa | Egungo kontratuari aplikatuko terminoa | Azterlan ekonomikoan | Prezioen berrikuspenari buruzko txostenean |
|-------------------------------|--|--|---|
| Kapitalaren hasierako balioa | Berreskuratuko den inbertsioaren balioa | 3.596.000 euro | 3.596.000 euro |
| Urteko interesa | Deskontu-tasa | Ehuneko 5,53 | Ehuneko 5,53 |
| Aldia | Abonuen arteko denbora, «inbertsioa berreskuratzeko kostuak» kontzeptupean | 1 (urtekoa) | 1 (urtekoa) |
| Errentaren terminoak | Kontratuaren iraupena, urtetan | 10 termino | Kalkulatzekoa (soluzioa: 10 termino) |
| Errentaren terminoaren balioa | «Inbertsioa berreskuratzeko kostuak» terminoa | Kalkulatzekoa (soluzioa: 477.760,03 euro) | 477.760,03 euro |

Harremanetan jarritako operadore ekonomikoei egindako eskaera, jasotako erantzunak eta udalak zerbitzuaren kostu-egiturari buruz egindako proposamena

Donostiako Udala bost operadoreekin jarri zen harremanetan: Aquambiente, Vanagua, Socamex, FCC eta Aqualia.

Enpresa horiei azterlan ekonomikoaren iruzkinean dagoenaren antzeko ezaugarriak dituen koadro bat betetzeko eskatu zitzaien. Salbuespen bat du: ibilgailuen kostu nahasiak «zuzeneko beste kostu batzuk» atalaren parte dira orain, eta operadorearen esku dago ehuneko guztiak sartzea.

Kontsultatutako operadore guztiek bidali zizkioten kostu-egiturak udalari. Jarraian datorren taulan, jasotako erantzunen oinarrizko elementuak agertzen dira, baita udalaren proposamena ere, jasotako datuetan eta udalak emandako ezagutzan oinarrituta.

| <i>Balioak ehunekotan daude</i> | Batezbestekoa | Tartea | Behin betiko proposamena |
|--|---------------|-------------|--------------------------|
| Langileak | 63,56 | 58,79-72,58 | 64,27 |
| Erregaiak eta lubrifikatzaileak | 4,14 | 1,39-7,00 | 3,94 |



| | | | |
|---|---------------|------------|---------------|
| Makineriaren operazioaren mantentze-lanak | 5,60 | 2,31-9,50 | 4,31 |
| Inbertsioa berreskuratzeko kostuak | 9,57 | 6,42-12,45 | 12,54 |
| Zuzeneko beste gastu batzuk | 5,86 | 4,00-7,53 | 5,47 |
| Zeharkako gastu orokorrak | 7,07 | 1,92-13,00 | 5,45 |
| Mozkin industrialak | 4,21 | 1,98-6,00 | 4,02 |
| Kostuak guztira | 100,00 | | 100,00 |

Udalaren ustez, LOA kalkulatzeko sortu zuen banaketa operadore ekonomikoen agregatuaren antzekoa da, eta prezioak berrikusteko azken proposamen gisa, bere zenbatespenaren eta operadoreen agregatuaren arteko batez besteko aritmetikoa ezartzea erabaki du.

Oharrak

Udalaren arabera, udalaren eta operadoreen balioak antzekoak dira. Dena den, horrez gain, ez da inolako arrazoirik eman operadoreen agregatuaren eta udalaren zenbatespenen arteko batez besteko aritmetikoa aukeratzeko LOA kalkulatzeari begira. Kontsiderazio horrek ez du lotura handirik udalaren eta operadoreen balioak konbinatzearen komenigarritasunarekin, eta guztiz subjektiboa da. Batzordea ez dator bat, ez behintzat inbertsioa berreskuratzeko kostuei (amortizazioak) edo zeharkako gastu orokorrei dagokienez.

Zein diren berrikus daitezkeen kostuak eta zein ezin daitezkeen berrikusi.

Jarraian datorren taulak kontratuaren kostuak jasotzen ditu, berrikus daitezkeen ala ez eta zergatik berrikusiko diren; izan ere, berrikus daitezkeen kostu bat soilik berrikusi beharko litzateke aldakuntza nabarmenak izan baditzake eta, aurreikuspenen arabera, denboran zehar mantenduko balira. Taula udalak aurkeztutako arrazoibideetatik abiatuta egin da, eta batzorde honen iritziz udalak zenbait kostu berrikus ezin daitezkeen kostu gisa zehazteko erabili dituen arrazoibide inplizituekin osatu da.

| | Berrikus daitezke | Arrazoiak | Berrikusi egingo dira |
|---------------------------------|-------------------|---------------------------|-----------------------|
| Langileak | Bai | Ezinbestekoak, nabarmenak | Bai |
| Erregaiak eta lubrifikatzaileak | | | |

| | | | |
|---|----|----------------------------------|--|
| Makineriaren operazioaren mantentze-lanak | | | |
| Inbertsioa berreskuratzeko kostuak | Ez | Finantzakoak direlako | |
| Zuzeneko beste gastu batzuk | Ez | Gastu orokorrak | |
| Zeharkako gastu orokorrak | Ez | Gastu orokorrak, egitura-gastuak | |
| Mozkin industrialak | Ez | Mozkin industrialak delako | |

Berrikusteko formula

Hauxe da udalak proposatzen duen berrikuspen-formula:

$$K_t = 0,6427 \times (1 + P_t) + 0,0394 \times (1 + CL_t) + 0,0431 \times (1 + M_t) + 0,2748$$

Halaber, adierazten da formulako hiru biderkaduren emaitza laugarren dezimalera biribilduko dela gainerako terminoetara gehitu aurretik.

Udalak honela definitzen ditu formularen elementuak:

- t : Berrikuspena zein urtetarako egiten den. Kontratuaren % 20 bete arte prezioak berrikusiko ez dituztenez, t -k 3 eta 10 arteko balioak hartuko ditu.
- K_t : t bakoitzerako adjudikazio-prezioari aplikatu beharreko berrikuspen-ehunekoa.
- P_t : eskulanaren kostuen aldakuntzaren ehunekoa t urterako. Era berean, adierazten da aldagai hori sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak izandako gehikuntzara mugatuko dela gehienez ere, berrikuspena egingo den urteko Estatuko Aurrekontu Orokorraren legeen arabera. Muga hori 55/2017 Errege Dekretuaren 5. artikuluan dago.
- CL_t : erregai eta lubrifikatzaileen kostuen aldakuntzaren ehunekoa t urterako.
- M_t : mantentze-lanen eta konponketa kostuen aldakuntzaren ehunekoa t urterako.

Aldagai bakoitzari balioak esleitzeko erabiltzen diren indizeei dagokienez, udalak honako hauek hartzen ditu:

| Berrikus daitekeen kostua | Erabilitako indizea (hiperestekako lotura eta guzti) |
|----------------------------------|---|
| Eskulana | Itundutako batez besteko soldata-aldakuntza metatua, enpresa baino goragoko esparrukoa, «Hondakinak biltzea, tratatzea eta ezabatzea» 38. dibisiokoa, kontratua |

| | | |
|---------------------------------|-----|---|
| | | formalizatzen den hilabetetik prezioa berrikusten den hilabetera arte (Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa) |
| Erregaiak eta lubrifikatzailak | eta | Klaseen indize nazionala (harmonizatuak, 2015 oinarri), 0722 Ibilgailu pertsonaletarako erregaiak eta lubrifikatzailak (EIN) |
| Mantentze-lanak eta konponketak | eta | Klaseen indize nazionala (harmonizatuak, 2015 oinarri), 0723 Ibilgailu pertsonaletarako mantentze-lanak eta konponketak (EIN) |

Eskulanari dagokionez, 55/2017 EDaren 5. artikulua betetzeko, langile-kostuek gehienez ere izango duten mugatzat joko da zer igoera aplikatuko zaien sektore publikoko langileen ordainsariei. Halaber, indize hori urtero aldatzen denez, soldata-aldakuntza urteroko bakoitzean igarotako hilabeteen proportzioan doituko da.

Ahal den neurrian, udalak indize bananduak erabili ditu, eta horiek bere jarduketa-eremua berrikusi behar den kontzeptura mugatzen dute. Hala ere, telefonoz egindako elkarrizketa baten bidez, udalak adierazi zuen ez zuela egokitzat jo soldata-kostuetarako ahalik eta indize bananduena erabiltzea; Gipuzkoako lurraldean aplikatzekoa den sektoreko hitzarmenean itundutako ordainsariak zirela ulertu zuen udalak. Izan ere, lizitatzailak probableenak garbiketaren eta estolderiaren mantentze-lanen Gipuzkoako sektorean pisu handia duten enpresak direla kontuan hartuta, haren iritziz, ez da betetzen 55/2017 EDaren 7.4 artikulua ezartzen duena, hau da, aukeratutako indizeak ezin dituela operadoreak (lizitatzailak) bere kabuz aldatu.

Azkenik, formula aplikatzeari buruzko adibide praktiko bat aurkezten da; hurrengo apartatuan berariaz jorratzen da.

Oharrak

Udalak hitzarmen aplikagarritik ateratzen den soldata-indizea ez den beste bat erabiltzeko dituen arrazoiak ulertuta ere, ez da ikusten atzera botatzen den indizea operadoreak bere kabuz aldatu ezin dituen horietakoa denik, 55/2017 EDaren 7.4 artikulua araberak. Indize horretan, operadoreak botere handia du, baina, nolahi ere, mugatua, lizitatzailak ez diren beste enpresa batzuk eta ordezkariak sindikala daudelako.



Formulak aplikazio-arazoak ditu, eta, udalak proposatutako adibidea ikusita, bereziki agerian geratu denez, jarraian bildutako apartatuan azalduko dira.

Formula aplikatzeko adibide praktikoa

Udalak formula aplikatzeko adibide bat aurkeztu du, argi geratu dadin. Horretarako, datu hauek aurkezten ditu:

- Adjudikatutako mota: 1.000.000 euro.
- Formularen Pt terminoaren balorazioan erabiltzen den indizearen balioa 2024an: ehuneko 1.
- Formularen Pt terminoaren balorazioan erabiltzen den indizearen balioa 2025ean: ehuneko 2,5.
- Formularen Pt terminoaren balorazioan erabiltzen den indizearen balioa 2026an: ehuneko 2.
- Formularen Ct terminoaren balioa berrikuspenaren unean: ehuneko 24.
- Formularen Mt terminoaren balioa berrikuspenaren unean: ehuneko 2.
- Kontratuaren hasiera: 2024ko uztailak 1.
- Urterokoaren berrikuspena: 2026/2027, aholku-batzordeak interpretatu du 2026ko uztailaren 1ean egingo dela berrikuspena (kontratuaren hirugarren urtearen hasiera da, azterlan ekonomikoan agertzen den hasiera-aurreikuspenarekin).

Adibideko datuekin, udalak zenbatzen du 2024/2025 aldirako hainbanatutako igoera ehuneko 1,71 dela, 2025/2026 aldirako hainbanatutako igoera ehuneko 2,25 dela eta 2024ko uztailetik 2026ko uztailera bitarteko Pt indizearen benetako balioa ehuneko 4 dela.

Adibideko datuekin, formula honela geratzen da, udalaren arabera:

$$K_3 = 0,6427 \times (1 + 0,04) + 0,0394 \times (1 + 0,24) + 0,0431 \times (1 + 0,02) + 0,2748$$

$$K_3 = 0,6684 + 0,0489 + 0,0440 + 0,2748$$

$$K_3 = 1,0361$$

Eta berrikusitako mota hau da: $1000000 \times 1,0360 = 1036026$.

Oharrak

Badirudi koherentziarik gabe egin direla batuketak eta biderketak ehunekoekin, eta, gainera, baliteke akats aritmetikoak egin izana. Balio problematikoena P_3 da, eta, batzordearen iritziz, honela izan beharko luke:

1- P_t indizeak denbora-une bakoitzean duen balioaren zehaztapena

| Urtea | Itundutako batez besteko soldata-igoera, aurreko urtearekiko |
|-------|--|
| 2024 | Ehuneko 1 (ez da erabiliko) |
| 2025 | Ehuneko 2,5 |
| 2026 | Ehuneko 2 |
| 2027 | Udalak ez du ematen (z deitu da) |

2024ko indizearen balioa ez da erabiltzen 2023rekiko soldata-igoera adierazten duelako; bilakaera hori ez da garrantzitsua, baldin eta soldaten oinarri-urte gisa kontratua hasten den urtea (2024) erabiltzen bada.

2- P_3 nola kalkulatu

P_1 eta P_2 ez dira erabiliko, kontratuaren hirugarren urtera arte ez delako berrikuspenik egingo, baina honako balio teoriko hauek izango dituzte:

$$P_1 = P_0 \times \left(\frac{6}{12}\right) + P_0 \times \left(\frac{6}{12}\right) \times 1,025 = 1,0125 \times P_0$$

$$P_2 = P_0 \times \left(\frac{6}{12}\right) \times 1,025 + P_0 \times \left(\frac{6}{12}\right) \times 1,025 \times 1,02 = 1,03525 \times P_0$$

Eta P_3 hau izango litzateke:

$$\begin{aligned} P_3 &= P_0 \times \left(\frac{6}{12}\right) \times 1,025 \times 1,02 + P_0 \times \left(\frac{6}{12}\right) \times 1,025 \times 1,02 \times z \\ &= 1,0455 \times (2 + z) \times P_0 \end{aligned}$$

Garrantzitsua da ohartaraztea horrek hiru arazo dakartzala: bat, irakurgarritasunean; eta bi, formularen aplikagarritasunean. Irakurgarritasunaren haritik, agerian geratzen da P_1 , P_2 eta P_3 interpretatu behar direla kontratuaren urte bakoitzeko erreferentziazko soldaten maila adierazten duten balio gisa (2024/2025, 2025/2026, 2026/2027); P_0 , berriz, kontratua hasten den urteko soldaten maila da (2024). Aplikagarritasunaren lehen arazoa da formula oso konplexua dela, urte-zati bakoitzari soldata-indize desberdina egotzi nahi zaiolako. Aplikagarritasunaren bigarren arazoa da P_t -ren kalkulua balio baten mende dagoela, batzordearen irizpidearen arabera ebatzitako adibidean z deiturikoa, eta balio hori ez da ezagutzen prezioen berrikuspena egiten



den unean. Horrek esan nahi du iraungitako kontratu-urtearen arabera formula kalkulatu beharko litzatekeela eta amaitu berri den kontratu-urtearen zenbatekoak erregularizatu beharko liratekeela.

Arazo horien aurrean, formularen aplikazioa errazteko neurriak hartzea iradokitzen da. Hauek izan daitezke batzuk:

- Prezioak urte naturaletan berrikustea.
- Prezioak kontratu-urteetan berrikustea, baina P_t -rentzat eguneraketa-balio bakarra aplikatuta uniformeki ($x/x+1$ kontratu-urtea berrikusteko, x soldata-aldakuntzaren indizea soilik aplikatuko litzateke, alde batera utzita kontratuaren urtearen zein zati gertatzen den x egutegiko urtean eta zein $x+1$ ean).
- Urte bakoitzeko indizeen orde, oraingo eta aurreko urteko indizeen bidez berrikustea P_t ($x/x+1$ kontratu-urtea berrikusteko $x-1$ indizean x zatikirako $x-1$ ean hitzartutako soldata-aldakuntzaren indizea eta $x+1$ zatikirako x -an hitzartutako soldata-aldakuntzaren indizea erabiliko lirateke). Esan behar da udalak bere adibidean irizpide hori aplikatu duela, baina kostuak berrikusteko proposamenaren dokumentuan ez da ikusten formula ezarri zenean asmo hori lortu nahi zela pentsatzeko adierazpenik.

Beste ildo batetik, agerian geratzen da udalak biderkadurak lau dezimalek biribiltzeko duen jarraibidea ez dela errespetatzen azken kalkuluan; izan ere, K_3 balioa 1,03601 gisa kalkulatu arren, azken kalkuluan 1,0360 gisa agertzen da, eta dezimalak laugarrenetik harago gorde dira; K_3 kalkulatzeko benetan 1,036026 erabili da.

V. ONDORIOAK

Hori guztia dela eta, Donostiako udal-estolderiaren sarea garbitzeko, ikuskatzeko eta isurketak kontrolatzeko zerbitzuaren kontratuak, oro har, bete egiten du lege hauek ezartzen dutena gai horri buruz: Sektore Publiko Kontratuen 9/2017 Legea, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea eta 55/2017 Errege Dekretua, zeinak 2/2015 Legea garatzen baitu. Nolanahi ere, batzordeak uste du alderdi batzuk aldatu egin daitezkeela betetze hori hobetzeko, bereziki prezioak berrikusteko formula diseinatzeari dagokionez, konplexuegia gerta daitekeelako.



Ondorioz, Donostiako udal-estolderiaren sareko garbiketa-, ikuskapen- eta kontrol-zerbitzuaren kontratuaren kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko **txostena egin da.**